

3. EZAUGARRI BEREZIAK

Gida azkarra.

BILAk gida azkarra dauka; horren bitartez errazagoa izango da lehen urratsak egitea tresna informatiko berriarekin.

Gidak zerga-ereduak nola aurkezten diren irakasten du.

Aurreko ekitaldietako programetako datuak berreskuratzea.

Gogoan eduki behar da aurreko ekitaldiko laguntza-programetako datuak berreskuratu daitezkeela berriro eskuz ez sartu behar izateko.

Horretarako “Aurreko ekitaldietako programetako datuak berreskuratu” hautatu behar da. Honetaz jakin beharrekoak:

- BILA plataforman instalatuta dauden eruedetarako bakarrik erabil daiteke.
- Instalatutako eredu bakoitzerako erabili behar litzateke. Hots, hiru eredu badaude instalatuta, hoberena eredu bakoitzaren datuak berreskuratzea da, nahiz eta antzekoak izan. BILAk grabatuta dauden datuak mantenduko ditu eta sartzen diren datu desberdinak gehituko ditu.

Horri esker erroreak detektatu daitezke. Adibidez:

- 190 ereduan harremanetarako telefonoa 666333666 da; 193 ereduan, aldiz, 666333669 ipini da, oker.
- BILAn bildutako 190 ereduko datuak berreskuratzen badira eta gero 193 eredukoak, bi zenbakiak grabatuko dira aitortzailearen fitxan, elkarren ondoan ikusi eta okerrekoa ezabatu ahal izango da.


Abisuak.

Dena plataforma batean bilduta egongo denez gero, leiho batean agertuko dira baliagarri jartzen diren ereduen abisuak eta haien eta plataformaren beraren eguneratzeen abisuak; horri esker ez da egongo web orrira sartu beharrik ezer berririk dagoenez ikusteko.



Ereduak aurkezteko aukera berriak (berehala prest)

BILAREN bidez ohi bezala aurkeztu ahal izango dira ereduak (fitxategia sortu, Bizkaibain sartu, fitxategia erantsi, bidali, ...), baina beste modu bat ere egongo da: zuzenean bidali.



BERRIA (aukerakoa)

